



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 4a

136. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena. Zuzenketak aurkezteko epea etetea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da –zehazki, Sustapen Ministerioa– 2021ean egin ditzan AP-68 autobidearen Lodosako lotunea –14. zenbakikoa– osatzeko aurreikusitako obrak. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pandemian zehar behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten gaixo onkologikoei. Osasun Batzordeak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien ixteko ordutegia muga dezan. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak onetsia (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, museoetako kultur eskaintza egunetan eta ordutan handitzeari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascun- ce andreak egin du (6. or.).

—Galdera, osasun arloko profesionalak Nafarroako landa eremuekin fidelizatzeari buruzkoa. Domingo Gon- zález Martínez jaunak egin du (7. or.).

—Galdera, Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jau- nak egin du (8. or.).

—Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak garraioaren eta bide-azpiegituren arloan egindako kudeake- tari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Nafarroako errepide sarean inbertitzeko irizpideei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, bidesari erako zerga berriaren zertarakoari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, urriaren 21etik Nafarroako Jauregian egindako aperitibo, bazkari edo afariei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, errepideetako eta industrialdeetako jatetxeek beren instalazioetan janaria eskaintzeko irizpideei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Next Generation EU Europako funtsetarako kultura arteko bizikidetzari buruzko proiektuei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Batzorde Tekniko Aholku-emaileari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, fase-aldaketak eta berrirakitzeak erabakitzeke adierazle eta parametro objektiboari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Minbiziaren Estrategia Nazionalaren gaineko mozioaren bigarren puntua betetzeko ekintzei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, baheketa masiboak egiteko eta neurriak hartzeko irizpide eta atalasei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Gaztelania eta euskara ikasi” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Arrakala digitalaren aurkako borroka” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Herritarrentzako arreta hobetzea Chatbots bidez” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Justizia hobetzea eta herritarrengana hurbiltzea” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Justiziaren arloko lankidetzeta eta koordinazioa hobetzea” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Efizientzia energetikoa hobetzea Justizia Zuzendaritza Nagusiari atxikitako eraikinetan” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Zigor-betearazpenaren eredu bat ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Iruñeko Justizia Jauregian klima-instalazioa eraberritzea” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Giza baliabideen kudeaketa hobetzea Justiziaren arloko langileen arloan” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Next Generation EU funtsetarako aurkeztutako “Justiziaren arloko Gizarte Zerbitzuaren kudeaketa hobetzea” proiektuari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, berezko funtsak edo Europako funtsak ez dituzten Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren proiektuei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (21. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2021eko lan egutegia (23. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2021eko ordutegi ofiziala (24. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA ETETEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea etenik uztea, Nafarroako Foru Berria Garatzeko Ponentziak bere txostena

egin arte. Foru lege proiektua 2020ko ekainaren 25eko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da –zehazki, Sustapen Ministerioa– 2021ean egin ditzan AP-68 autobidearen Lodosako lotunea –14. zenbakikoa– osatzeko aurreikusitako obrak.**

*LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2020ko azaroaren 27an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da –zehazki, Sustapen Ministerioa– 2021ean egin ditzan AP-68 autobidearen Lodosako lotunea –14. zenbakikoa– osatzeko aurreikusitako obrak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du –zehazki, Sustapen Ministerioa– 2021ean egin ditzan AP-68 autobidearen Lodosako lotunea –14. zenbakikoa– osatzeko aurreikusitako obrak, horretarako beharrezkoak diren aurrekontu-zuzkidurak esleituta”.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pandemian zehar behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten gaixo onkologikoei.**

*OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2020ko azaroaren 24an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pandemian zehar behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten gaixo onkologikoei”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu

behar bezalako arreta sanitarioa eman diezaieten pandemian zehar gaixo onkologikoei.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du COVID-19rako Minbiziaren Plan bat presta dezan, gainerako autonomia erkidegoekin elkarlana eginez eta Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluaren baitan, Osasun Sistema Nazionalak minbizirako estrategia berri baterako joraturiko ildoaren barrenean”.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien ixteko ordutegia muga dezan.**

### *GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2020ko azaroaren 25ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da saltoki handien ixteko ordutegia muga dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mugatu dezan azalera handiko saltokien ixte-ordutegia, jardunik gabeko ordu batzuk ezarriz, zenbait autonomia erkidegok jadanik egiten duten bezala.

2. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio alda dezan 1/2004 Legea,

abenduaren 21ekoa, merkataritza-ordutegiei buruzkoa, zeina aldaturik gertatu baitzen aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren V. tituluak xedatutakoaren ondorioz. Helburua da autonomia erkidego bakoitzak zehatz dezala zer igande eta jaiegunetan izanen duten irekitzeko aukera saltoki handiek.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio kanpaina bat egin dezan gizartean, kontzientziate-lana egitekoa igande eta jaiegunetan erosteak hainbat arlotan duen eragin negatiboari buruz".

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, museoetako kultur eskaintza egunetan eta ordutan handitzeari buruzkoa.****ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, museoetako kultur eskaintza egunetan eta ordutan handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Zuzendaritza Nagusiak asmoa erakutsi du kultur eskaintza egunetan eta ordutan handitzea, azpimarra berezia jarriz jaiegunetako zubien opor laburretan. Horretarako, proposamen bat egin zaie museo batzuei bisita gidatuak eta bestelako jarduerak areagotzeko, eta hori

ahalbidetzeko departamentuak diseinatutako hedatze-plataforma bat eskaintzen zaie eta jardueren areagotzea finantzatzen da.

Ildo horretatik, museo horietako batzuen zuzendaritza arduratzen diren fundazioen bidez bermatzen da jardueraren zati handi bat, langile berekiak erabilia eta haien kide batzuk beren denbora eskainita. Museo horiek proposamena onartu eta betearazteko konpromisoa hartzen dute, beren baliabideak erabilia.

Baina jakin dugunaren arabera ezin dute hori egin, erantzuten zaielako ezin dutela fakturatu orduen igoera, "kanpoko enpresa bat kontratatu behar dutelako".

Ez dirudi logikoa denik museoaren eta obraren ezagutzarik ez duten kanpoko langileak kontratatu behar izatea, baina museoari ezin ordaintzea garatuko lukeen lana, bere baliabideak erabilia eta ordutegi berean, era horretan lagunduz museoaren mantenimendurako.

Horregatik guztiatik:

Zer arazo tekniko edo bestelakorik dago, ordu gehiagotan irekitzeko eta bisita gehiago programatzeko prest dauden museo horiei ekintza mota hori onartzerakoan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Galdera, osasun arloko profesionalak Nafarroako landa eremuekin fidelizatzeari buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, osasun arloko profesionalak Nafarroako landa eremuekin fidelizatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako hainbat lekutan (Beire, Pitillas, Lesaka, Erriberri, Azkoien, Zizur...) bizi direnek eta bertako osasun eskualde oinarritzako osasun langileek beren kezka adierazi dute prentsan,

giza baliabide urriak daudelako osasun arretari baldintza egokietan erantzuterakoan.

Besteak beste, honako gabezia eta arazo hauek nabarmendu zituzten: langileak falta dira (une honetan sendagile-lanpostu eta pediatriako lanpostu batzuk bete gabe daude); ez dira ordezkatzen oporretan edo aldi baterako ezintasunagatik baja dauden langileak, biztanleen parte batek ez dauka esleiturik sendagilea, zailago bihurtuz gaixoen zitazioa eta jarraipen egokia, arreta presentzialerako ordutegia murriztea, eta abar.

Denboran luzatzen ari den egoera horrek dakartzan ondorioak dira profesionalen agendak kolapsatzea, gehiegizko lan-zama, lanaldiak areagotzea, etsipena, frustrazioa eta langileen arteko nahiz erabiltzaileekiko gatazkak.

Arazo horiek gure erkidegoko herri gehiegitan gertatzen ari dira, eta prentsak horien berri ematen du aldian-aldian.

Gertatutakoa ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Zer neurri ezarriko dira osasun arloko profesionalak Nafarroako landa eremuekin fidelizatzeari begira, osasun-laguntza egokia eta bete gabeko lanpostuak betetzea bermatzeko? Zer epetan?

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

## **Galdera, Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan da Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroa prestatzeko prozesua eta zer urrats egingen dira behin betiko onetsi arte?

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak garraioaren eta bide-azpiegituren arloan egindako kudeaketari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Lurralde Kohesiorako kontseilariak garraioaren eta bide-azpiegituren arloan egindako kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Chivite andrea, babesa ematen al diozu Lurralde Kohesiorako kontseilariak hilabete hauetan garraioaren eta bide-azpiegituren arloan egindako kudeaketari?

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



## **Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusiak desadostasunak gainditzeko emandako txostenaren arabera Nafarroako Gazteriaren Kontseilua linbo juridiko batean dago. Nafarroako Gobernuak nola konponduko du egoera larri hori?

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, Nafarroako errepide sarean inbertitzeko irizpideei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako errepide sarean inbertitzeko irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak zer irizpide izan du Nafarroako errepide sareko errepideetan inbertitzerakoan datorren urteari begira?

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## Galdera, bidesari erako zerga berriaren zertarakoari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, bidesari erako zerga berriaren zertarakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Bidesari erako zerga berriarekin, Lurralde Kohesiorako Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako errepide saretik ibiltzen diren garraiolariantzako zerbitzuak hobetzeko?

Iruñean, 2020ko azaroaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## Galdera, urriaren 21etik Nafarroako Jauregian egindako aperitibo, bazkari edo afariei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, urriaren 21etik Nafarroako Jauregian egindako aperitibo, bazkari edo afariei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hedabide baten bidez atzo jakin genuenaren arabera, azken egunotan Nafarroako lehendakariak bazkari bat izan du Nafarroako Jauregian,

bizikide ez diren hamarren bat pertonekin. Horri buruz, parlamentari honek haxe jakin nahi du:

1. Zenbat aperitibo, bazkari edo afari egin dira jauregian urriaren 21etik galdera honi erantzuteko egunera arte?

2. Haietako bakoitzari dagokionez:

– Egiteko arrazoia.

– Lan-bilera izan bada: eguneko agenda, aipatu bazkari, aperitibo edo afariaren aurreko edo ondoko bileren ordua adierazita.

– Haietako bakoitzera agertu direnen kopurua, ordezkatzeko zuten erakundea adierazita eta, Nafarroako eta Gobernuaren kideen eta goi karguen kasuan, horien identifikazioa.

– Bazkari, aperitibo edo afarian zerbitzatutako menua.

– Kostu ekonomikoa eta zein partidaren kargura finantzatu den.

3. Egindako bazkari, aperitibo edo afari bakoitzaren babesten duen araua.

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, errepideetako eta industrialdeetako jatetxeek beren instalazioetan janaria eskaintzeko irizpideei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, errepideetako eta industrialdeetako jatetxeek beren instalazioetan janaria eskaintzeko irizpideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer iritzi objektiboren arabera zehaztu ditu Osasun Departamentuak errepideetako eta industrialdeetako jatetxeetatik beren instalazioetan garraiolariari eta funtsezko langileei janaria eskaintzen ahal dietenak, garraiolarien elkarrekin eta jarduerarekin lotutako beste eragileek egindako eskariari erantzunez?

Iruñean, 2020ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Next Generation EU Europako funtsetarako kultura arteko bizikidetzari buruzko proiektuei buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Next Generation EU Europako funtsetarako kultura arteko bizikidetzari buruzko proiektueiburuzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Europako Next Generation EU funtsen hurrengo deialdietara zer proiektu aurkeztuko du kultura arteko bizikidetzazpimarratuta?

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer asmo edo helbururekin helarazi dio Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak Arrazakeriaren aurkako Nafarroako Planaren zirriborroa Berdintasun Ministerioako Tratu Berdintasunaren eta Gizarte Aniztasunaren zuzendari nagusiari?

Aipatu plana prestatzeko prozesuaren zati bat da ala kontu formal hutsa?

Zein izan da zirriborro hori prestatzeko prozesua?

Bertan parte hartu al du Nafarroako Gobernuko departamentu gehiagok? Nola eta noiz?

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## Galdera, Batzorde Tekniko Aholku-emaileari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Batzorde Tekniko Aholku-emaileari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den azaroaren 23an Nafarroako Gobernuak ostalaritzako sektoreko ordezkariekin bilera izan ondoren emandako prentsa-oharraren bidez lehenbiziko aldiz jakin genuen batzorde tekniko aholku-emaile bat dagoela.

Noiz eta zer prozeduraren bidez formalizatu da aipatu batzordearen eraketa?

Nork osatzen du aipatu batzordea? Zein dira batzordearen eginkizunak?

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## Galdera, fase-aldaketak eta berrirekitzeak erabakitzeko adierazle eta parametro objektiboei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, fase-aldaketak eta berrirekitzeak erabakitzeko adierazle eta parametro objektiboei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristi-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Joan den azaroaren 23an Nafarroako Gobernuak, ostalaritzako sektoreko ordezkariekin bilera izan ondoren emandako prentsa-oharraren bidez, aditzera eman zuen aipatu bileran zehaztu egin zirela "fase-aldaketak eta berrirekitzeak erabakitzeko adierazle eta parametro objektiboak".

Zein dira irizpide eta atalase horiek?

Zertan datza fase bakoitza?

Aipatu bileran zehaztutako irizpide eta atalaseen gaineko xehetasuna eskatzen dugu eta, halakorik izan bada, geroagoko aldaketak eta haien justifikazioa.

Iruñean, 2020ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Minbiziaren Estrategia Nazionalaren gaineko mozioaren bigarren puntua betetzeko ekintzei buruzkoa.**

